



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abaildu 'erori'	«...eta ez zen sasoi berriaren trazarik ere iturri inguruko ostarte hori eta abaildu sarrian.»	(258)
abaro 'babeslekua, aterpea'	«Hanka bihurritu zitzaiola pentsatuz, haren bizkar ahituaren abaro izerdi-usaintsura babestu nintzen, gezi gehiagoren beldur.»	(264)
adeitsu 'errespetuz, gizalegez'	«Ez nintzaion hasiko adeitsu eta farrastan esaka planoak eta jabe-agiriak Aba Yakuerenean aurkitu nituela.»	(17)
adirik galdu gabe 'arreta handiz'	«Zutitu egin nintzen. Adirik galdu gabe eman nuen asti asperra.»	(265)
ahakarka hasi 'agirika hasi, deiadarka'	«...eta arrotza, aretora itzulirik, beheko sura inguratu zenean, orduan ere ez nintzaion ahakarka hasi .»	(26)
ahal 'desioa adierazteko hitza' (Ojalá)	«— Utziko ahal naute!»	(167)
ahalenetan 'alajaina'	«Gaur ere jarriko nindukek hartara, ahalenetan! »	(274)
ahaletan • 'Bai horixe!' (?)	«Battis Toberak laster jakingo zuen zertan zebilen mutila. Ahaletan! »	(364)
ahalik -en 'albait -en'	«... ahalik azkarren galdu nahi ninduen begi bistatik.»	(251)
ahamen 'mokadua'	«...zure lehen saioa amaitzen duzunean, ahamen bat jan, eta lo asper bat egiteko astia hartuko dugu.»	(182)
ahitzear 'ahitzeko zorian, puntuan'	«Kriseiluko olio ahitzear , olio berria botatzen da zaharraren gainera: hala (...) lore berri bat haur bertutetsuaren florilegioari.»	(263)
ahur 'esku barrua'	«Txotxak esku ahurrean gorde, haien puntak bakarrik agerraraziz, eta eskua luzatu zidan.»	(58)
aiduru 'itxaroten, zain'	«Luze egon nintzen aiduru , zer entzun eta ikusiko, hurrengo eraso nondik etorriko.»	(265)
aienatu 'uxatu, aldenarazi'	«...eta nire inguruan bilduta zegoen jendea aienatu zenuen, Erregeren izenean ezpata dantzatuz.»	(387)
aieru 'keinua'	«... aieru jolastiari gorrentzun egin, eta beste bide batetik bihurritu nintzaion ni.»	(225)
aihumaka 'kexuz, intzirika'	«...haren astinaldiak bide bazterreko orbela aihumaka jarri zuen...»	(265)
aitoren seme 'kaparea, noblea	«Begirada jaso zuen Erregek, eta haren begiak aitoren seme batengandik beste batengana ibili ziren...»	(202)
aiumaka 'kexuz, intzirika'	«Gauaren hotsak aiumaka ari ziren.»	(301)
aiztoaren aho 'ganibetaren ertz zorrotza'	«Aiztoko errautsak garbitu zituen gero, galtzen izter parean igurtziz aiztoaren aho bat lehendabizi, gero bestea.»	(182)
akain 'kaparra' (bizkarroia)	«Soldaduei desio izandako arkakuso, zorri eta akainena nire baitarako gorde nuen...»	(344)
akelamarro 'arkamelua, gizon txiki-potoloa'	«Zanpantzar bat zen, Erregek neskaten irri-eragile erabiltzen zuen gizon akelamarroa .»	(159)
aketz 'irendu'	«...seme izan nezakeen hain perkatx ari zitzaidan mutil hura, baldin hogeita hamar bat urte lehenago axeter bati eskatu ez banio aketz eta antzu nintzala.»	(370)
ala 'txalupa txikia, laua eta zabala'	« Alak txanelak baino zabalagoak dira, baina hondoa beste untziek baino laburragoa dute...»	(316)
alaena 'halakoa, ezin gehiagoan'	«— Potraketz alaena! Hago isilik.»	(372)
albait 'ahal izanez gero'	«...arrotzak ez zuen, ordea, nire saioa eten, eta nik ere ez nuen, albait , harena etengo.»	(184)



alberdania 'jolas edo txantxa lotsagarria'	«—Kamustuko zaizkio, bego lasai, baronet! Azeria txitarekin bezala ibiliko gara alberdanian .»	(127)
aldabera 'aldakorra'	«...zeruko lainoen itxurak, formak eta koloreak berak baino aldaberagoak zitzaizkidan Jonanerenak.»	(262)
aldarri 'jakinerazpena, oihuzko mezua'	«Mugarre kapitainaren mezulariek aldarri bat zabaldu zuten hiriko karriketan kantoiz kantoiz...»	(214)
aldatsu 'aldatsean dagoena, maldatsua'	«Sabai aldatsuaren pean usategi modura egokituta neukan gela txiki batera sartu nintzen.»	(400)
aldero 'aldara, pausu eragabea, balantza'	«...oreka galtzeaz nengoela, ezker-eskuin gero, zartaldi batek desorekatutako alderoa oso besteratzat bigarren kolpe batez.»	(303)
alderoka 'aldamenka, oreka gabea'	«...haren beso eroriek, alderokako ibilerak eta bizkar okertuak...»	(32)
alderotu 'okertu, balantzan mugitu'	«Nik burua albo batera mugitu ahala, haraxe alderotzen zuen arrotzak ere bere gorputza...»	(36)
alderrai 'batetik besterakoa, mugikorra'	«Plazakantoietakozuziek errainu alderraiak sortzen zituzten plazaren inguruko arkupeetan...»	(236)
alkaterna 'bikea edo galipot antzeko gai ...	«Bidean aurrera egin ahala, haratustel zornetuaren kiratsa hasi zitzaion nagusitzen zuzien alkaternarenari .»	(117)
altzo 'magala'	«Katedraleko dorreak isla galtzen ari ziren, pixkana-pixkana ilunbeen altzora bilduz.»	(66)
alumintz 'aluko azala'	«...sabelpera eraman zuen bigarren eskua ere, alumintzan zeukana sakatu, eta fereken norabideak aldaraziz.»	(108)
amarru 'maltzurkeria, azpikeria'	«...Aba Yakueren amarruak eta, oro har, Erregeren interesa piztuko zuten azpijoko eta ziribide guztiak.»	(103)
amore eman 'etsi, galdutzat eman'	«Ez zenuten, ordea, erabat amor eman , goroldio haren inguruko esamesa ere zabaldu baitzenuten...»	(260)
anartean 'artean' (<i>oraindik</i> , iraganean)'	«... anartean ez bainion borroroburuari baizik adierazi esku artean nerabilen (...) xedea.»	(93)
anpolai 'gerezia bezalakoa'	«Emakumeen hizketamodu arin eta alaiak, masailetakoz anpolai zein pipitakoz loreek (...) nabarmenago uzten zuten erreginaren aurpegiko zurbiltasuna...»	(189)
antosina 'ur pitxerra (garagardo-pitxerrar.	«Tailerreko lankideak antosinaz dupina-gainak kolpatzen hasi ziren...»	(227)
antxumatu 'bata bestearen gainean ipini'	«Mahai gainean antxumatuta neuzkan besoak...»	(359)
apatx 'jezarri' (Umeen hizkeran)	« Apatx , apatx hemen, attittok ttittia emanen...»	(360)
apego 'apeoa, euskarria, zutabea'	«—Ez nuen berori deituko legenarra soilik izan balitz, baronet. Apego ezin hobea da hezetasuna legenarrarentzat...»	(118)
apeta 'guraria, irrika'	«Laster egin zuten baratzuriak eta pattarrak urrearen prezioa (...) gaixotzeko beldur zirenen osasun nahiaren apetaz ...»	(379)
arbi 'baratz landarea'	« Arbi papurtuaren zukua hirugiharretan bildu, eta haren frijiduraz osaturiko taloa atera nion mahaira.»	(27)
ardantzopa 'ardo zopa, salda'	«— Ardantzopa hartuta baino murmuak joago hago, adiskide! —gozatu nuen.»	(357)
ardora 'uraren islada edo distira'	«—Ez da izango, bada, ilargiaren ardorak eragiten dizun irudikazioren bat?»	(57)
aretxe 'aratxea, txahala'	«Atseginez hartu zituen aretxearen saiheski ketuak eta urdemutur ozpinetan beratuak.»	(27)
arkoila '(Argolla), katebegi antzekoa	«...atariko arkoilatik lotuta zegoen zaldi bakararra seinalatu zuen buruaz.»	(243)




arrakero 'tranpatia, iruzurtia'	«Erromesak, gaitzen batek joak, motxaile eta trabeslari arrakeroak egunsentieroko mirarira inguratzen hasi ziren.»	(260)
arrane 'arraioa, madarikatu'	«— Tok! Eta fundi hadi bertan, aza-ustel arranea! »	(363)
arranpak jo 'kalanbrea sentitu'	«Urdaileko arranpak jo banindu bezala harritu ninduen, ordea, Pillarditen erantzunak...»	(290)
arrenkura 'kexua'	«— Arrenkuraz ari al zara?»	(243)
artatsu 'arduratsua'	«...osaba kezkatu baten arretari egotzi behar zitzaion ilobarekiko jarrera artatsua. »	(106)
asperra 'luzea'	«Zutitu egin nintzen. Adirik galdu gabe eman nuen asti asperra. »	(265)
astalkatu 'haria astaritan bildu soka	«Ez dute oraindik astalkatu eta harilkatu nire lepoa edertuko duen urka-bilurraren soka.»	(239)
ataka 'posibilitatea / irekidura'	«...aurrera jo nuen bide bururatu berritik (...) ezin nuen-eta ataka hura galdu.»	(47)
atalase 'atariko eskailera, maila'	«...ufaka trufatuz bota ninduen ate nagusiko atalasetik , atarira sartzeko ere aukerarik gabe.»	(340)
atezu 'tentsiozkoa'	«Hura neurtu eta erabaki nahian zebiltzan haren begi atezuak , arratsaldeko gorri gerezikoloreak suturik...»	(161)
atezuan 'tentsioan'	«...uluren batek edo zakurraren arrazoi jakinik gabeko zaunkak atezuan jartzen ninduenean, kriseilua hartu eta aterantz joaten nintzen...»	(16)
atondu 'prestatu, apailatu'	«Jauregiko axeterrak ekarri zituen kapitainak, musde Dexesen gorpua ahal zuten txukunen aton zezaten.»	(213)
atuxa 'ekipajea'	«Ez nion besterik esan, eta Grazibel bidaiarako atuxa prestatzen hasi zen.»	(176)
atzarria 'iratzarria, esnatua'	«Gure lurra beti bizi izan da armetan jarria eta atzarria. »	(90)
atzera 'berriro, berriz'	«Ez dut uste arrotza ohartu zenik nire asmoaz, baina, nik ezer irakurtzerako, atzera gorde zuen aiztoa gerrian.»	(182)
ausaz 'agian, beharbada, apika'	«Neska hori al da, ausaz , gure ile artetik inorenera pasaturik, onik aterako gaituen zorria?»	(149)
axeter 'atxeterra, sendagilea'	«Jauregiko axeterrak ekarri zituen kapitainak, musde Dexesen gorpua ahal zuten txukunen aton zezaten.»	(213)
azal-apainetan 'eztitan, goxo-goxo'	«Aspaldian ut egina nielakoan jauregiaren jabe egin nintzen egunei, horren azal-apainetan bizi nintzen, ordea...»	(23)
azkonar 'ugaztuna' (Tejón)	«...eta atera bitza matxinoak beren azkonar -zuloetatik.»	(105)
azpildura 'tolesa' (Dobladillo)	«...aitaren aginduak ez zuen inolako azpildurarik ...»	(367)
aztarrikatu 'induskatu, lurrean sakondu	«...lepaldea luzatu, atzeko hankak atzera aztarrikatu , eta aurrealdeko sastrakara begiratu zuen...»	(311)
bafada 'putza, aire kolpea'	«Gau epelaren bafada emakume ederrenaren musua baino gozoago, etxetik irten nintzen.»	(314)
baga 'uhina, olatua'	«Hotzikaraz bihurritu nintzen, hozkirriaren bagek eraginda, udazkenaren abisu nabarmen.»	(301)
baiki 'eiki, benetan, egiazki'	«Galtza bete ipurdi nengoen, baiki , beldurrez airean.»	(349)
bainoago 'baino gehiago'	«Ezpataz zauritu banindu bainoago izutu ninduten arrotzaren azken hitzek.»	(34)




bala 'fardoa, sorta bildua'	«Ez duk, ordea, erraza izaten (...) albiste interesatuen balan lastoa eta garia bereiztea.»	(277)
balaku 'lausengua, losintxa'	«...galdetu diodanean zure balakuez, balakuetara mugatzen den osaba baten maitasuna <i>non est vetanda</i> dela erantzun dit...»	(101)
balbeena bota 'hil mehatxua bota'	«...satorjaleren batek balbeena botatako ia guztietan, oso denbora gutxira mastaren batetik eskegirik agertzen zen balbeenaz mehatxatua.»	(307)
balda-balda egin 'jipoitu, gogor astindu'	«Uste al duzue ni bezalako gizaixo bat kokildu egingo dela balda-balda egin nahi dutelako?»	(378)
baldan 'traketsa, zabarra'	«...asto lanerako gogorik gabeak aski du bide bazterreko hirusta mordo bat (...) trosta baldanari planto egin eta (...) entretenitzeko.»	(215)
banoki 'alferrik	«Arratsaldea nagitzen hasia, beirateak banoki irazten zuen liburutegiko leihotik irristatutako azken errainu xumea...»	(14)
bapo 'ederto, ederki'	«Horrela egiten duzue aberatsok lo, esne zuridun behi beltzek baino bapago.»	(257)
barbuila 'astrapala, zaratotsa'	«Ezagutzen nuen ohol bakoitza, (...) leihotik gertu egonagatik, eguzkitan ihartuaren barbuila .»	(312)
barratu 'marradura'	«Zilarrezko islak eta argiaren barratuak famerial baten itxura ematen zioten arrotzari...»	(179)
barreiatu 'sakabanatu'	«Ugari ziren bide bazterrean barreiaturiko kutun, zirtzil, pildumen eta makuluak , baina ez nien inolako konturik egin...»	(266)
barrena 'barrualdea, urdaila'	«Berdina zuten aire lamak eta leotzetako kiratsak trinkotasuna, berdina kerua. Barrena irauli zitzaidan.»	(145)
barride 'auzunea'	«Sindikoaaren jauregitik barride zaharrerantz jo nuen.»	(340)
bart 'aurreko gaua'	«Tabernariak zorriak zizkian bart gorputz osoan, eta hirekin kitatu nahi zizkian haien zimikoak.»	(371)
begirantza 'ikusketa, azterketa'	«Bukatu genuen etxearen begirantza , eta nire beharren neurritan egokitua neukan areto nagusira itzuli ginen...»	(31)
beirate 'beirazko egitura'	«Liburutegia eta eskaratza bereizten dituen beirateko irudian jarrita zeukan arreta.»	(13)
benazko 'benatsua, serioa'	«Katedralean egin nuen lehendabiziko aproba benazkoa ...»	(194)
berariaz 'apropos, beren-beregi'	«Ez dakite —edo berariaz ahanzten dute— zigorle zutena eta ferekatzaile dutena ehiztari bera direnik.»	(20)
beratua 'bigundua'	«Atseginez hartu zituen aretxearen saiheski ketuak eta urdemutur ozpinetan beratuak .»	(27)
berna 'hanka, zangoa'	« Bernak ireki zituen astiro-astiro eta soinekope biluziak pubis ile-urria erakutsi zien nir begi harrituiei.»	(100)
bike 'galipota, uia (Alquitrán)'	«...ibaian ibiltzeko aski zitzaidan untzi xume bikez irazgaiztu hura.»	(316)
bil-bil egin 'batu-batu egin, erabat bildu'	«Arrotza ikusi nuen, bere arropak bil-bil egin , eta etxe aurreko belar meta baten azpian ezkutatzen arropa pilda.»	(24)
bilur 'soka'	«Gehienera ere, betirako isilaraziko ninduen, urka- bilur lakar bat lepoan lotuz...»	(201)
biradera 'birak emanarazteko gailua'	«Leiho ondoan zegoen, arratsaldeko azken argi izpien baliantzan, zaldiaren biraderari eragin, eta haren trostari so.»	(164)
birao egin 'madarikazioa bota'	« Birao egin nuen neure kabutan.»	(284)
biska 'lika, pegamentuaren antzekoa'	«Eskaintzen nien diruaren handia biska ona zen soldaduentzat...»	(418)



bisustu 'busti, bitsez edo aparrez bete'	«—Pasa hadi, gaua ez zegok-eta ihardun bisustuetarako ...»	(268)
borborka 'erio handian'	« Borborka hasi zitzaion odola. Hartan bustiz berotu nituen esku hormatuak.»	(265)
bortzegi 'uhalez lotzen den bota luzea'	«Supazter aurreko kadiran eseri, haren atzearen kontra bizkarra laxatu, eta bortzegiak kentzen hasi nintzen.»	(83)
brastakoan 'kolpean, deblauki'	« Brastakoan hedatutako laino itxiari ohi zaion izu-zirrarak hotzikaratu ninduen.»	(13)
brist-brist 'distiratsu, ñir-ñir'	«...esan zidan barrez, begiak brist-brist .»	(234)
burdalet 'marizikina, emagaldua'	«...buruhauste guztien iturri dugun matxino jendearen (<i>plus sonat quam valet</i>) burdalet izan da neska, matxinokide bainoago...»	(99)
burketa 'burdi txikia, orgatila'	«Laster, gizon konkortu batek tiratako burketa bat pasatzen ikusi nuen leiho aurretik.»	(236)
burtzin 'bertzuna, errautsa batzeko pala'	«...neronek ere astindu nuen etxeko sutondoko burtzin kez belztua.»	(215)
buruments 'adimenik gabe, lelotuta'	«...haren begiradek eta ferekek haurra buruments uzten omen zuten...»	(305)
burusi 'estalkia, manta'	«Etzanda nengoen harkizpean babes, lo-zorroan, burusi beltz, zirtzildu batean bilduta.»	(333)
dama beltza 'heriotza'	« Dama Beltzarengandik ihesi (<i>son, son eta son</i>), giza-inurri ilada zenbat eta luzeagoak orduan eta etsiagoak ikusten ziren bideetan...»	(379)
damuaizun 'benetakoa ez den damua'	«...nire damuaizunaren bidea ere sasiek hartuta zegoen.»	(321)
damuor izan 'damuturik egon'	«Errondal, damuor naiz ..., eta desenkusaka hasiko al zinateke?»	(399)
dean 'abade nagusia'	«Ahularen arma dira oroimena eta zalantza, esan zuen Aba Yakuek, Erret-hiriko dean eta Erregeren aitorleak...»	(97)
deliberatu 'erabaki'	«Zizeiluan eseri nintzen, beharreko asti guztia hartzera deliberaturik .»	(131)
desgisatu 'desitxuratu'	«...argiaren karela zeharkatu zuen, eguzki-begi zilartsuko hautsak harrotu eta argiaren izpia desgisatuz .»	(181)
destaina 'gutxiespena, mespretxua'	«—Izututa?... Zure mende?... —eutsi nion, destainaz , hizbideari —.»	(46)
dexestar 'Musde Dexes-en jarraitzailea'	«Erregek pozarren saritu berria zuen dexestar matxinoen aurkako nire garaipena...»	(74)
doi-doi 'ozta-ozta, justu-justu'	« Doi-doi sartzen zitzaidan azkazala bi harlauzen arteko erreten meharrean...»	(216)
doietan egon 'azkenetan, hil zorian'	«...arrotza doietan zegoen ; lupuak jota; arnas hari baten mende, belearena baino hega beltzagoko bati arima errenditzeko kinkan.»	(48)
domine 'jauna, agintaria'	«Arrisku latza dakarkizu arerio ustez baldarra Erret-hiriko domine trebeenarekin zaildua dagoela berandu konturatzeak...»	(33)
dupina-gaina 'kantinarene estalkia'	«Tailerreko lankideak antosinaz dupina-gainak kolpatzen hasi ziren...»	(227)
edena 'pozoia'	«Instant bat lehenago arrotzak oso garbi zeukan edena nahastu niola esnari.»	(29)
egokiera 'une egokia, parada, abagunea'	«Helas! Azkenetan zegoela kontutan hartuta, kutsaduraz larritu orde, etekina atera nahi izan nion egokierari .»	(56)
egonarri 'patxada	«Beirateko marrazkiari begira zegok hori, pentsatuta, ez nintzen egonarri hartaz kezkatu...»	(26)




egunabar 'egunsentia'	«Ordurako zabaltzen hasita zegoen egunabarra , eta eguzki-begi zilartsua zeharka heltzen zen leihotik gelaren erdiraino...»	(178)
ehunkera 'ehundura, 'oihalaren egitura'	«...soinean neraman zamarrarena baino ehunkera biguinagoko maripolisa erantzi nion hilotzari.»	(336)
eita 'eupada'	«—Eit! Eit! Ba al da hor inor! —hasi nintzen deiadarka. Eitak eta deiak oihartzun errepikatueta ugari zitzaizkidan...»	(209)
elauso 'elur-jausiak'	«...gailurretan pilatutako elurra udaberriko beroetan elauso handietan maldabehertzen den bezala pilatu zitzaizkidan gertakizunak.»	(91)
ele 'ipuina, kontu zaharra / berba'	«...tximinizulotik gorantz eginez, egunsentia heldu orduko abarkagintza uzten zuten eleetako galtxagorriek bezala.»	(179)
eltzekai 'eltzekaria, lapikokoa'	«Zornearen kirats ozpindua nagusitzen zitzaion eltzekaienari .»	(425)
emendatua 'gehitua, berretua'	«...ezagutzen zuela leiho parean jarrita argiak haren gorputzari eskaintzen zion lerdentasun emendatu hura.»	(147)
enbarazua 'egonezina, urduritasuna'	«...baina enbarazua ezkututzen saiatu nintzen, tonu arduratsua berreskuratuz...»	(82)
endredu 'nahastea'	«Alferrik ari haiz, ordea. Nirekin ez dute endredu horiek balio.»	(350)
eraitsi 'behiei-eta esnea atera'	«...normala zela erreberoa, ahuntzaren esne eraitsi berriak, behiarena edo ardiarenak ez bezala, baduela ur hezearen zapora mikatz hori.»	(28)
erantzi 'aldetik kendu, biluztu'	«Kapusai bustia erantzi , airean astindu, eta tximinia ondoko gako batetik eskegi nuen...»	(245)
erasanda 'alferrikaldua, pasatua'	«...artean gizon gordina, erasanda zegoen arrotza, aurpegi zurbil-zurbileko bi argi-zuloek salatzen zutenez.»	(18)
erauntsi 'erasoa, ekaitza'	«Haize erauntsi batek gelako leihoa astindu, eta bi zafak zabaldu zituen kolpe zakar batez.»	(171)
erbinude 'ogigaztaia' (Comadreja)	«... erbinude bat irten zitzaion zaldiari bidera.»	(294)
erdeinu 'arbuioa, mesprezua'	«Jendea sakabanatu nahian hasi ziren, onez eta inolako erdeinurik gabe.»	(342)
erdietsi 'lortu, jadetsi'	«...nire izenaren ondoan nondarra nintzen adierazteko eskubidea erdietsi behar nuen.»	(206)
erkindu 'ahuldu	«Neroni nengoen, agian, ahultzen eta erkindu hasia.»	(17)
eroapen 'pazientzia'	«Galdera haiek eroapenaz baizen argituko ez nituela etsita, gela nagusira iritsirik, suaren aurreko harmaila erakutsi nion.»	(21)
errando 'jazoera, pasadizoa'	«—Zer gertatu zen, ba? Kontatu errandoa , Otto...»	(82)
errando 'esaera'	«— Errando egoki bat aurkitu nahi nuke neure armarrirako.»	(133)
errari 'batetik bestera dabilena'	«...arima errari baten itzala zirudien arrotzaren errainuak horman gora...»	(185)
erratza 'ginarra'	«Arrotzak, erratza eskuan, ezkaratzerantz begiratzen zuen behin eta berriro.»	(42)
errierta egin 'agiraka egin, gogor egin'	«—Ederki motel! Ez al huen zardaibazka hau garbitu orteko onik? — egin zion errierta .»	(373)
esakizun 'esana, esakunea'	«...oso letra txikiz, latinezko esakizun bera irakur zitekeen: <i>Fugite partes adversæ ut complexus non siat (sit) similis morte.</i> » [Aldegin, etsaiok,	(15)
esetsia 'erasoa / jazarria'	«Basurde esetsiari bezala loditu zitzaizkion begiak, baina ez ninduen jo.»	(40)




eskuzaparta 'eskuzarta, txaloa'	«Beste eskuzaparta bat eman nion berriro zaldiaren zurdari, animaliak bere trosta, gero eta nekatuagoa, arin zezan...»	(255)
esnai 'esna, itzarrik'	« Esnai egin genuen gauaren parterik luzeena.»	(175)
espaka 'kexaka, intzirika'	«Ez nintzaion zurikerietan eta espaka ere hasi.»	(20)
estekadura 'atxikidura, juntura'	«Ezagutzen nuen ohol bakoitza, (...) uranditua egonda, albokoaren estekadura traba zitzaionaren ziri hots txirritia...»	(312)
estimutan izan 'apreziatu, estimatu'	«Eskuez ukitzen ez dena, edo begiez ikusi ezin duguna ez duzu sekulan estimutan izan .»	(256)
estraina 'lehenengo, lehenbizi'	«Otto deitzen ninduten estraina , Grazibelen osaba ere banintzenez, jendeak irriz ttetekatzen baitzuen nire deitura.»	(51)
estura 'estutasuna, presioa'	«Lihozko xaramela loreduneko lokarriak laxatu zituen, bularraldea esturatik libratuz.»	(81)
euri sarria 'euri ugaria, zarratua'	«Ezbeharra ekarri zuen uholdeaz oroitzen gara handik urteetara, baina ez uzta oparoa bideratu zuen euri sarriaz .»	(82)
ez non eta ez han 'ikusi-ez ikusi, aztarrenik gabe'	«Otu zitzaidan une hartantxe ez non eta ez han desager zitekeela arrotza...»	(179)
ezin eraman 'ezin jasan'	«Hirea, ordea, ezin eramango diate.»	(289)
ezkabia 'azal kutsatua'	«...legerdunak ezkabia puska bat soinetik kendu eta lurrera botatzen du...»	(266)
ezkaratze 'sukaldea'	«Arrotzak, erratza eskuan, ezkaratzerantz begiratzen zuen behin eta berriro.»	(42)
ezponda 'muna'	«Kainaberaditik harantzagoko ezponda eta hondar tontor ezpata-belarrez inguratuak...»	(183)
ezproin 'zaldiei ziztatzeko zirria'	«...zaldi gainera igo eta orpoak estutu nituen, ezproinen kolpe lehor bakar bat emanik, animaliaien sabel bueltan.»	(261)
farfaila 'harrokeria'	«Bizitzari armarri, heriotzari hilarri: harginek lanbide dute baten farfaila eta bestearen izua harrian lantzea.»	(135)
farrastan 'beste barik	«Ez nintzaion hasiko adeitsu eta farrastan esaka planoak eta jabe-agiriak Aba Yakuerenean aurkitu nituela.»	(17)
fatrasia •	«— Utikan! Nahiago dinat korregidorearen eta errotari andrearen fatrasia .»	(384)
fereka 'laztana'	«Eskua pasatu nuen zaldiaren zurda gainetik, fereka pausatuan...»	(253)
florilegio 'literatur lan hautatuen sorta'	«Kriseiluko olio ahitzear, olio berria botatzen da zaharraren gainera: hala (...) lore berri bat haur bertutetsuaren florilegioari .»	(263)
fortunatu 'suertatu'	«...harik eta batere haizerik gabeko urte batez irerik gabeko egun ikusgarri bat fortunatu zitzaion arte.»	(264)
frakanasa 'prakazabala, patxada handikoa'	«— Izarrak kontatuz? Hau seme frakanasa !»	(173)
<i>fugite partes adversae ut...</i>	« <i>Fugite partes adversae ut complexus non siat (sit)similis morte.</i> » 'Aldegin, etsaiok, besarkada heriotza bezalakoa izan ez dadin'	(15)
gaitzizen 'ezizena, izengoitia (mote)'	«Ezin zehatz adieraz dezaket, hainbeste ordu pasatu da-eta handik hona, nire gaitzizena entzun izanak sortu zidan izuaren handia.»	(51)
gakotua 'kako edo arku itxurakoa'	«Ilbeheran jaiotako gizon ñañoa iduri, bizkarrak konkor eta belaunak gakoturik zeuzkan	(267)
galaniatu 'harropuztu'	«Txakur bapo asega galaniatzen denean, hegoak eta hankak kraskatu ohi dizkio ahoan daukan galeperrari...»	(299)



galauts 'gariaren hautsa'	«...huraxe sentitu nahi izan nuen: galautsaren usain beroa besape eta bularretan...»	(262)
galgara 'berotasun handia'	«Ikatzta belzten hasiko zen laster, eguzki galgarak jotako izotza urtu ohi den bezala.»	(97)
galtxorri 'galtxorri, deabrua'	«...tximinizulotik gorantz eginez, egunsentia heldu orduko abarkagintza uzten zuten eleetako galtxorriek bezala.»	(179)
galtza bete ipurdi egon 'izuturik, beldurturik'	« Galtza bete ipurdi nengoen, baike, beldurrez airean.»	(349)
gandor 'gangarra, gailurra'	«Zabal-lekuan kokatua, larrain-bizkarrak zituen ezker-eskuin, eta mendi zorrotzen gandor luzea atzean.»	(326)
garmin 'erre-usaina'	«Ixtazu leihoa, kearen usain garmin horrek ez dit-eta areagoko mesederik egiten.»	(49)
garo 'ira, iratzea (helecho)'	«Bi zaldi ikusi nituen animalien inaurkinetarako garo eta belarren biltokian.»	(44)
gatzari 'jazena, habe nagusia'	«Neuk ere ez dakit nola eusten dion hain gatzari luze batek horko sabai horri.»	(30)
gazitatu 'abisu eman'	«Manduliz josita egoten da Allandebide, eta gazitutzen zaitut (...) gehiagok ere ziztatuko zaituela.»	(257)
gelberatzat jo 'koldartzat edo inozotzat jo'	«Baina torturari buruzko nire zalantza ugariak Erregeri adierazi orduko, hark gelberatzat joko ninduenez...»	(94)
gerezikolore 'more antzekoa'	«Hura neurtu eta erabaki nahian zebiltzan haren begi atezuak, arratsaldeko gorri gerezikoloreak suturik...»	(161)
gernu 'txiza edo pixa'	«Auskalo non ibili den piz eginean, eta non zornetu zaion gernua .»	(371)
gibelarri 'errekaria (biribildua dena)'	«Kobazuloaren sakonera ezagutzeko bota ohi diren gibelarriak etorri zitzaizkidan burura.»	(19)
gider 'kirtena (asta)'	«Non ikusi ote dut nik ezpata- giderrari heltzeko modu hori...»	(34)
giza-orbel 'giza multzoa'	«...bertatik edaten zuen erromes eta giza-orbel gero eta sriagoak.»	(260)
governatuta 'jagonda, zainduta'	«Azkarra duk oso. Ondo governatuta zegok.»	(278)
gogait eragin 'gogaitarazi, asperrarazi'	« Gogait eraginda nengoen kometa agertu zenetik entzundako ele barregarriez.»	(81)
goroldio 'harri hezeen gaineko belarkia'	«Erreka hondoan dabilen harriari, ordea, ez zaio goroldiorik itsasten...»	(256)
gorrentzun egin 'ez entzunarena, gorrarena egin'	«...aieru jolastiari gorrentzun egin , eta beste bide batetik bihurritu nintzaion ni.»	(225)
gozomikatz 'gozoa eta mingotsa'	« Gozomikatz iritzi nion, hala ere, metalur herdoilduari.»	(258)
grakatsu 'lohi-lohiak, ugerrez betea'	«Artilezko galtzerdi lakarrak ere kendu nizkion, oin grakatsuak bistaturik.»	(21)
guristo 'ulua, intziria edo minezko	«Guztiek zuten beren soinua, kraskateko nahiz txilio, intziria eta guristo ; hots bat saguaren arrameskarekin nahas zitekeen...»	(312)
haizu 'zilegi'	«Zeuek irakasten ez duzue, bada, pentsamendu guztiak ez direla adierazteko haizu ?»	(140)
hanpatua 'puztua, harrotua'	«...ez ninduen mehatxuak harritu, arrotzaren hizketarako manera guztiz hanpatuaren segurantzak baino.»	(18)
har 'irrika / zizarea, kotxoa'	«...erantzun bat eman behar nion arrotza etxetik bota beharraren harrari .»	(300)




harama 'zaramatza' (hika)	«...urrutiegi harama Aba Yakueren kontrako zorneak.»	(103)
harramaska 'atzaparkada'	«Guztiek zuten beren soinua, kraskateko nahiz txilio, intziri eta guristo; hots bat saguaren harramaskarekin nahas zitekeen...»	(312)
hede 'animalientzako larruzko uhalak'	« Hedeari tira eta zalditik jaitsi nintzen, bidearen zati bat oinez egiteko.»	(258)
hegabera 'hegazti mota' (Avefría)	«...abila zen nik botatako hegabera ozpinetan edo nik harrapatutako amuarrainak keturik prestatzen...»	(269)
helas! 'horra!'	« Helas! Azkenetan zegoela kontutan hartuta, kutsaduraz larritu ordez, etekina atera nahi izan nion egokierari.»	(56)
helge 'heldubakoa, gordina'	«Gauza gutxi dago inon helge itxurago, ezpainbihurrika zotin egiten duen gizon zolia baino...»	(321)
herra 'gorrotoa, hegigoa'	«—Gauari eguna datorkiola bezain ziur! —oihukatu nion, herraz. »	(319)
herrestan 'arrastaka, tarraz'	« Herrestan atera zenuen gorpua plazaren erdiraino.»	(214)
hilaizun • hiltzorian dagoena'	«Hildako bati ala hilaizun bati, nori egiten nion kortesia Pillarditi egindako bisita harekin?»	(270)
hirugiharre 'urdai mota (bacón)'	«Hatz luze zartatuen puntez askatu zuen larruzko estalkia, irin taloz hirugiharrea biltzerakoan egin ohi denaren justu kontrara.»	(14)
hobari 'onura / oparia'	«Kometen agerpen hori zigorraren gaztigu dugula ala ondo eginaren hobari? »	(83)
holakatu 'horrela jarri'	«—Zer duzu? Zerk holakatzen zaitu?»	(169)
hormatu 'izoztu, leitu, jelatu'	«Borborka hasi zitzaion odola. Hartan bustiz berotu nituen esku hormatuak. »	(266)
hostarte 'hostaia, hosto multzoa'	«...hain zen klaustroko isiltasuna ilun, gaua itxi, airea geldi, hostartea ilaun.»	(267)
ibilgo / ibilgu 'ibilaldia / pasiloa'	«Gelatik gelara bitarteko ibilgo luze hartan, nire arreta arrotzaren argibidera adina, haren gorputz tantaira ere jarrita zegoen.»	(31)
iel 'arreske dagoena' (en celo)	«...baina zaldirik ederrenak botatzen zaitu behor iela ikusi orduko.»	(129)
ihi 'zingiretako belar landarea'	«Ez nekien oinetako lurra ari zen dardarka ala neroni nintzen ekaitzaren mende zegoen ihia ; ez nuen ikara besterik sentitzen.»	(110)
ihusturi 'tximista, inisitua'	« Ihusturiak jota legez baratu nintzen bertan-pronto.»	(342)
ikur-ele 'lema	«Neuk ere lagunduko nizuke zure jitearekin bat letorkeen ikur-elea bilatzen.»	(133)
ilaun 'geldoa'	«...hain zen klaustroko isiltasuna ilun, gaua itxi, airea geldi, hostartea ilaun. »	(267)
ile-barban 'ile txiki-txikia eta habuina'	«Neskaren biloak, ile-barban horixkaila artean, zetaren antzekoa zuen ukitua, kresalarena usaina...»	(100)
imintzio 'keinua'	«...eta liburuxka gorde zuen azkar, lapurretaren imintzio eginez.»	(18)
inaurkin 'azpigarria, abereen azpietarako belarra'	«Bi zaldi ikusi nituen animalien inaurkinetarako garo eta belarren biltokian.»	(44)
inude 'hazama, umeak hazteko emakumea'	«...brodalaria kantuan, inudea sehaska bati eragiten...»	(401)
iradoki 'adierazi	«Arrotzaren ahotsak ez zeukan haren trazak eta eguzkitara iharturiko aurpegikerak iradoki zezaketen zakartasunik.»	(17)




irakurtzerako 'irakurri orduko, baino lehen'	«Ez dut uste arrotza ohartu zenik nire asmoaz, baina, nik ezer irakurtzerako , atzera gorde zuen aiztoa gerrian.»	(182)
irauli 'buelta eman'	«Berdina zuten aire lamak eta leotzetako kiratsak trinkotasuna, berdina kerua. Barrena irauli zitzaidan.»	(145)
irazgaiztu 'irazgaizt bihurtu (inpermeabilizatu)'	«...ibaian ibiltzeko aski zitzaidan untzi xume bikez irazgaiztu hura.»	(316)
irazi 'iragazi'	«Arratsaldea nagitzen hasia, beirateak banoki irazten zuen liburutegiko leihotik irristatutako azken errainu xumea...»	(14)
iren 'zikiratua, ernalkinak erauzitakoa'	«Gaztea iren bat zen, haurretako tonu meheko iharduna bizitza osoan gordetzen duten kantari bat.»	(193)
irritsez egon 'irrikitan, gogo handiz egon'	«...nobleen bidea hartu eta uda-jauregira aldegiteko irritsez zegoen.»	(155)
irudikazio 'asmazioa, irudipena'	«— Ez da izango, bada, ilargiaren ardorak eragiten dizun irudikazioen bat?»	(57)
istinkatua 'biketz estalia (kalafateatua)'	«...kainabera eta zain-belarren artean miatzen, noiz eskuaz ukituko alaren zuraia alkaternaz istinkatua .»	(316)
itaun 'galdera'	«Bi besamuturretatik eutsiz, neska neureganatu eta begietara so errepikatu nion itauna ...»	(230)
itsu-mutil 'itsu-gidaria'	«Gure adinerako hatz-puntak gogortuta egoten dira, eta ez dira izaten itsu-mutilik onenak...»	(350)
itsumustuan 'ustekabea, espero ez dela'	«Honetatik dastatuz gero, ohean zaudetela, inoiz ez bezalako neska bat agertuko zaizue itsumustuan .»	(279)
ixipu-ele •	«Hala gertatu omen zen, behintzat, aspaldi batean, ixipu-ele batek dioenez.»	(82)
jaidura 'grina'	«Entzuten nituen hots bakarrak (...) jaidurak dardartutako atari aurreko sahasarena...»	(314)
jakinerre 'nonzebarria'	«Zubian gero eta jakinerre ugariago, soldaduak agertu ziren laster.»	(342)
jite 'adiurrea, izateko modua'	«...banekien ezin nuela ezer handirik erabaki, bada-eta bere neurri eta jitea frogatzeko mentura gertatzen den arte...»	(31)
joare 'zintzarria, animalien	«Joare bat ezarri diogu lepotik eta agindu diogu irten dadila egunero plaza nagusira...»	(148)
kadira 'besaulkia'	«Supazter aurreko kadiran eseri, haren atzearen kontra bizkarra laxatu, eta bortzegiak kentzen hasi nintzen.»	(83)
kahaila 'txurtena, buztana'	«— Errabia dakiala zankarteko kahaila !»	(282)
kakalardo 'kakarraldoa, intsektu barailaduna'	«Eta guk, gorotzaloreak baikina, jaramon egin zioagu kakalardo horri...»	(285)
kalamatxino 'mamorroa, gaiztoa'	«— Kriseilua itzali dit eskaileretako kalamatxino gaiztoak! Buaaa!»	(224)
kalapita 'astrapala, liskarra'	«— Ez haiz ohartzen, eh, zorrizorro esker gaiztoa! — kalapita gorrian hasi nintzaion txakurrari...»	(335)
kana 'luzera neurria, metroa baino	«Hiriko gazterik bizienak hogeita hamarren bat kanako maio-masta gurinez labainduan gora hasi ziren.»	(192)
kanila 'txorrota'	«...erretenean zehar gorde ezkutuan iturrirainotua, behin kanilean , bor-borka irteten zen ura.»	(259)
kankailu 'handikotea eta itxura	«Arrotzaren gorputz kankailuak ez zidan ezpatari aditu baten inolako itxurarik iradokitzen...»	(33)
kanpai jo 'masturbatu'	«Edo... ez dut, bada, pentsatu beharko kanpai joka urratu zaizkizula eskuak?»	(419)



kapusaia 'soingaineko txanoduna'	«...fraile doktrinoek kalean erabili ohi duten kapusaia jantzi zuen.»	(69)
karela 'ertza'	«...argiaren karela zeharkatu zuen, eguzki-begi zilartsuko hautsak harrotu eta argiaren izpia desgisatuz.»	(181)
karrail 'arnasketa neketsua eta	«Hartan negoela, aurreko aldetik norbaiten hats karraila zetorkidala iruditu zitzaidan.»	(265)
karraskari 'marruskaria'	«Pipertuta hitz egin zidan, suminduta bainoago, hitz egiteko tonu karraskari batez...»	(134)
kaskail 'kankailua'	«...Mikaleten errotaren inguruetan etengabe imajinatzen nuen neure kabutan fraile kaskaila , niri irribarrez...»	(160)
kaskanta •	«—Plaudite cives! —esan eta Aba Yakue fraile kaskantak zilarrezko godaleta jaso zuen zerurantz.»	(189)
kazkarro 'zakarra, trauskila'	«...haur haren hezibidea gizaseme gazte kazkarro baten eskuetan ezin utz zitekeela esaten zidaten...»	(78)
kemin 'garmina, erre-usaina'	«Izango duk zuen sukalde horretako keminetan berotutako hondakinen bat.»	(272)
keru 'kiratsa, hatsa'	«—Zerena da keru gaiztoa? Sufreak bezala urratzen dizkik sudurzuloak... ez duk baina sufrea.»	(118)
kilimarro 'kilimakorra, suminkorra'	«Amona, amona, eskale kilimarroarena kontatuko... eta patuari adarra jo zion arrotzarena kontatuko lioke amonak iloba asegaitzari.»	(39)
kokildu 'mekotu, beldurtu'	«Uste al duzue ni bezalako gizaixo bat kokildu egingo dela balda-balda egin nahi dutelako?»	(378)
konketa 'garbitzeko ontzi modukoa'	«Belaki bat busti alboan neukan konketan , eta oinak garbitu nizkion neskari zapiaz...»	(100)
konkortua 'konkorduna, deformatua'	«...gorputz konkortua leiho-golkoan sartu, eta ezker-eskuin jiratzen zuen lepoa.»	(43)
konpletan ordua 'zazpigarren otoitz-ordua'	«Gero, agindu zehatzak eman nituen, matutietan matxino bat urka zezaten, konpletan orduan bigarren bat...»	(98)
kriseilu 'oliozko argi-ontzia'	«...uluren batek edo zakurraren arrazoi jakinik gabeko zaunkak atezuan jartzen ninduenean, kriseilua hartu eta aterantz joaten nintzen...»	(16)
kriskitinka 'hatzez egiten den soinua'	« Kriskitinka neukan irudimena, banekien-eta ez genuela ate-hots gehiago entzungo.»	(42)
kuku-mikuka 'ezkututzen eta agertzen ibili'	« <i>Nor zaitut?</i> haren atzean, <i>ondo ezagutzen haut</i> bat bide zebilen kuku-mikuka .»	(35)
kurrirka 'txilioka, orroeka'	«Barre egin nuen neure kabutarako, pentsatuz kurrirka hastea bakarrik falta zitzaiola arrotzari.»	(40)
kutun 'papparrean eramateko poltsatxo'	«Ugari ziren bide bazterrean barreaturiko kutun , zirtzil, pildumen eta makuluak, baina ez nien inolako konturik egin...»	(266)
labiri •	«Arrosa loreak usaina, / Labiriko urak arraina...»	(193)
lakar 'latza, leuntasunik gabea'	«Artilezko galtzerdi lakarrak ere kendu nizkion, oin grakatsuak bistaturik.»	(21)
lakarigorotz 'astakirtena' (?)	«Neure baitan bihurritu nintzen. Baina, baina... Lakarigorotz alaena!»	(19)
lakirio 'lakioa, animaliak harrapatzeko	«Ehiza ugariegiak gure soro eta landetako uztak arriskuan jartzen dituenean (...) lakirioak jarri ohi ditugu sorobazter (...) guztietan.»	(90)
lakirio zentzu berezian: errua	«...haren ezjakitun banintz, lakirio barkaezina gerta lekidake.»	(137)
lar 'larregi, gehiegi'	«Ez nintzen lar arduratu.»	(88)




laratz 'behe-suetako katea'	«...aberatsaren urrezko dukatak infernuko laratz bihurtu, behartsuaren malkoak zeruko lore...»	(168)
larrain-bizkar •	«Zabal-lekuan kokatua, larrain-bizkarrak zituen ezker-eskuin, eta mendi zorrotzen gandor luzea atzean.»	(326)
larrugin 'larru apaintzailea'	«...gau batez larrugin bat harrapatu zuten nire soldaduek hilerrian.»	(94)
lastabala 'lastozko fardoak	«Soto iluneko bazter batean lastabala pareta zegoen bata bestearen ondoan jarrita.»	(365)
lastatsu 'lasto hondakinak dituen'	«...eskuak hondarrez igurtziz batzuek, zohiz eta astagorotz lastatsuen zikinduz bestetzuek.»	(192)
lauoinkara lotu 'trosta bizian hasi'	«Gero, aurreko bi hankez gora egin eta lauoinka erora lotu zen, putingoka, beti ere nire orpoak sabel alboetan kolpeka.»	(262)
legonar 'legena (lepra)'	«— Ez nuen berori deituko legenarra soilik izan balitz, baronet. Apego ezin hobea da hezetasuna legenarrantzat...»	(118)
legenardun 'legena duena'	«...lur gaineko distira urdin haiek legenardun baten hatz zornuetako eratzunaren zilarrezko efektua baizik ez zuten lortzen...»	(49)
leotza 'lurpeko kartzela gela	«— Matxino batek ihes egin du leotzetatik . Erregeri ez zaio batere gustatu...»	(69)
lepazamar 'sama, idun alde'	«...damutzen hasita nengoen arrotza lepazamarretik hartu eta ostiko batez etxetik ez bota izanaz.»	(36)
lepazut 'tente'	«...norgehiagoka irabazitzat jo zuen, harro eta lepazut , ke ia guztiak desager-taraziz.»	(245)
lepo eginda egon 'bete-bete eginda egon'	«...eta orain gogoan ez ditudan beste hiruzpalau lagun. Ardoz lepo eginda geunden guztiok.»	(279)
liho-ele 'lihoaren langintzako	«...nik neskatxa mutil jantziaren liho-elea antzinako usantzan kontatzeari ekiten niolarik.»	(169)
liho-peza 'liho puska	«Hire zaldiak liho-peza zapaltzen duela ikusten duenean, neskatxa bada, esango dik kontuz ibiltzeko liho-baratzea hondatu gabe.»	(174)
linburi 'limuria, labaina'	«Nire minginaren murruska linburiek doi-doi bustitzen zituzten bular kimu gero eta dardarak joagoak.»	(233)
lingirda 'geruza berdea'	«...entzuten nuen ari zitzaidala kanilako ura, harri gaineko lingirdan lehertzen.»	(261)
lo asper 'lotalditxo, loaldi laburra'	«...zure lehen saioa amaitzen duzunean, ahamen bat jan, eta lo asper bat egiteko astia hartuko dugu.»	(182)
lor 'larritasuna'	«Grazibel gaitzak joa! Hura lorra ! Su eta ozpin neukan barrena...»	(324)
luhartz 'lur-txakurra, intsektu mota'	«...arrotz hirian ezkutatu baita, berorrek beti gorroto izan duen (...) luhartzen zirkilu horretan...»	(99)
lupuak jota 'azkenetan, hil zorian'	«...arrotza doietan zegoen; lupuak jota ; arnas hari baten mende, belearena baino hega beltzagoko bati arima errenditzeko kinkan.»	(48)
lur hila 'lur hutsezko behea, zorua'	« Lur hila zoru zuen gela eroso batera pasarazi ninduen.»	(245)
lur jota 'deprimituta'	« Lur jota zaude...»	(228)
lurmendu 'urtu'	«Ez zen hotz handirik, mendi gailurrak ordurako lurmentzen hasiak baziren ere.»	(293)
magister artium 'zeremonietarako arte-maisua'	«Jauregiko magister artium zaharraren pintura-gremioan <i>compagnon</i> izatera heldua...»	(193)
mahuka 'manga'	«Fraile jantziaren mahuka batean sartu zuen...»	(268)




maio-masta 'belauntzien haga'	«Hiriko gazterik bizenak hogeita hamarren bat kanako maio-masta gurinez labainduan gora hasi ziren.»	(192)
maiseatzaile 'gaizki esaka aritzen dena'	«Baina oso ahaltsoak dira putre maiseatzaileak gure erresuma honetan...»	(67)
makatz 'txertatu gabea, berezkoa'	«—Hemen sarriagoa da arbola makatza , kainabera eta sastraka; habeetarako baliorik gabea guztia...»	(30)
makulu 'herrenen... makulua'	«Ugari ziren bide bazterrean barreiaturiko kutun, zirtzil, pildumen eta makuluak , baina ez nien inolako konturik egin...»	(266)
malta 'Maltakoa'	«...eta urrezko gurutze malta txiki bat paparretik aterarik, eriaz kolpetxoak ematen hasi zen gurutzearen erdian...»	(104)
mamiñun •	«Han egona izango zen mamiñun Agatha.»	(210)
mandio 'lastategia, aletegia'	«Sotoaren ondoren, etxeko gela eta sala, pasadizo eta zurubi, mandio nahiz biltegi, jauregi guztia erakutsi nion.»	(29)
maripulisa 'gizonezkoen jaka'	«...soinean neraman zamarrarena baino ehunkera biguinagoko maripulisa erantzi nion hilotzari.»	(336)
marrumaka 'marrumak, orroek eginez'	«...eta orduan ekiten zioten, arrapaladan eta marrumaka , gainerako piztiak ere.»	(381)
marruska 'igurtzia'	«Nire minginaren marruska linburiek doi-doi bustitzen zituzten bular kimu gero eta dardarak joagoak.»	(233)
maskal 'higatua / ahula'	«Aitzitik, ordea, arrotzaren istorio zakar, maskala , instant bakar batean bizitza oso bateko nekeak bildu beharrez.»	(301)
maskar 'etsita, lur jota'	«Tximistak jotako arbola bakartiaren modura gelditu zen, besa-erori eta maskar , suaren ondoan, arnasa arnasari eman ezinik.»	(299)
matutiak 'lehen otoitz ordua'	«Gero, agindu zehatzak eman nituen, matutietan matxino bat urka zezaten, konpleten orduan bigarren bat...»	(98)
matxino 'matxinatua	«...hau eta hau gertatu zen, Erregek beste hura agindu zuen, hainbeste matxino izan zen kartzelatua...»	(59)
mauka 'onura'	«...txistu jo nuen, aukeraren mauka indartuz...»	(170)
mehar 'estua'	«Doi-doi sartzen zitzaidan azkazala bi harlauzen arteko erreten meharrean ...»	(216)
melaxkatu 'apaldu, lausengatu'	«Ez nintzaion, bada, zakur baten modura melaxkatu ...»	(20)
menostua 'zaharkitua'	«Oso menostuta ikusten haut...»	(249)
mezutu 'mezua bidali'	«—Pillardit eta Mikalet bildu orduko, mezu nazak non bildu behar dugun.»	(253)
mihise 'izara, maindirea'	«Erreginak, zurbil, jaio berriaren zetazko mihisea atondu zuen.»	(189)
mihura 'arboletako landare parasittoa'	« Mihura ederrenean dela, orduantxe ohartzen gara sagarrondoaren ahulaldiaz ere.»	(18)
mikatz 'mingotsa'	«...normala zela erreberoa, ahuntzaren esne eraitsi berriak, behiarena edo ardiarenak ez bezala, baduela ur hezearen zapore mikatz hori.»	(28)
mingela 'txaramela, pasadorea'	«...noiz izango nuen ate nagusiko mingela jasotzeko tenore.»	(310)
miru 'hegazti harrapakaria	«...ehiztariek beren iragan abilezia eta begi zorrotzaren oroimena miruak eta zapelatuz disekekatuz gordetzen duten bezala.»	(80)
miserere 'salmo kantua'	«...monodia triste bat (...) komentuaren erdiguneko klaustro urrunetik miserereka etengabe.»	(425)



mitiri 'mutiria, ausarta'	«Laino gris batek irentsi zuen eguzki mitiriaren azken izpia, esne zuridun behi beltzek hirusta bezain aise eta nekegabe.»	(263)
mizto 'sugeen mihia	«...herensuge baten miztoaren forma emanez...»	(258)
monodia 'bakarlari-kantua'	«Kantuan hasi zitzaidan Pillardit, kriskitinaren gisako monodia bati ekinez...»	(275)
mortuliar 'bakartia, eremita'	«...hegotik iparrerako bidea hartutakoak, fraile mortuliar apozorneak madarikatzen zituen...»	(380)
motzaile 'ijittoa, buhamea'	«Erromesak, gaitzen batek joak, motzaile eta trabeslari arrakeroak egusentieroko mirarira inguratzen hasi ziren.»	(260)
mozkin 'etekina'	«Bizitzak irakasten du trantze txarrenei ere mozkinak ateratzen.»	(128)
moztade •	«...nik ez dut sekula jakin haren burmuinetako moztadeari , belarrietako gorrari ala mingaineko pozoi hutsari egotzi (...) jokabidea.»	(249)
moztaka 'txikia, baxua'	«Gizon moztaka bat agertu zen...»	(341)
muinak hartuta •	«Ordurainokoa ez-bezala ikusi nuen arrotza. Urduri. Muinak hartuta. »	(40)
mukuru 'meta, piloa'	«Gero, inguruan aurkitu zituen zapi eta pildez mukuru bat osaturik, bizkarrean sartu zuen.»	(42)
munta 'garrantzia'	«Jonane izeneko purtzilarenak ez zuen, beraz, eta egoera hartan, munta handirik.»	(124)
murmu 'txakurren gaisoa (moquillo)'	«— Ardantzopa hartuta baino murmuak joago hago, adiskide! — gozatu nuen.»	(357)
musde 'Jauna' (Tratamendua)	«— Musde Satan! Sarkiok sarde uzkiti, sorkiok zorne zakildi!»	(45)
musuirri 'irribarretsu'	«Banekien ez zegoela musuirri , banekien haren soara ez zela batere gardena izango...»	(148)
mutiri 'ausarta / lotsagabea'	«Izututa egon behar zuten, ezin ulertuz nola nintzen hain mutiri eta zoro Erregeren aurrean jarraitzeko.»	(200)
narrio 'orbana, zauri modukoa'	«Eta, narrioen ondoan, pinportak. Okaranaren neurrikoak zituen trunpiloak.»	(357)
neroni 'neu'	« Neroni nengoen, agian, ahultzen eta erkintzen hasia.»	(17)
nigromante •	«Nork sinetsi behar zuen fraile hura nigromante , azti, astrologo, alkimiazale (...) zela?»	(286)
non est vetanda 'bidezkoa, zilegi'	«...galdetu diodanean zure balakuez, balakuetara mugatzen den osaba baten maitasuna non est vetanda dela erantzun dit...»	(101)
nondarra 'nongoa'	«...nire izenaren ondoan nondarra nintzen adierazteko eskubidea erdietsi behar nuen.»	(206)
ñaño 'nanao, epotxa, kakanarrua'	«Ilbeheran jaiotako gizon ñañoa iduri, bizkarrak konkorrak eta belaunak gaketurik zeuzkan	(267)
ñarro 'gorputz txikikoa'	«Fraile ñarroaren oinek ez zuten hotsik ateratzen...»	(267)
obramendu 'kaka egitea'	«Zarpa zerion arrotzaren arropa guztiari, obramendu eta ustel usaina haren gorputzari.»	(15)
ohara 'exzitatu, arreske dagoena'	«Grazibelen ipurmasaila beroek zakur ohararen dardara zuten nire eskuetan...»	(111)
oharka 'ohearen kutxa modukoa'	«Esnatu nintzenez, Pillardit ni loak hartutako toki berean eserita zegoen, begirada oharkarantz. »	(285)




ohegona 'gau atorra'	«Pillardit zen, eskaileretan behera, ohegona luze bat besterik ez zeraman neska sagarkolore batekin.»	(284)
oilomika 'oilo totela'	«...eta espero nuela aitorpenik ateratzea behor egoskorrena baino tematigo lotsagabetzen ari zen neska oilomika hari...»	(99)
oldezko 'kementsua, adoretsua'	«...egoera hartan ezinezkoa zen ziega sunsitzera prest egongo zen oldezko gizo- nik aurkitzea...»	(157)
olgeta 'jolasa'	«Ez nekien (...) zenbateraino hartzen zituen amodiozko olgetak (plazerraren atari, suaren pizgarri) beren benetako neurrian.»	(84)
ona galdu 'egonarria, patxada' (?)	« Nire ona galduta , burua zoritik jaso eta harantz jiratu nuen lepoa...»	(223)
onbera 'ontasunez, errukiz'	«Lepagaina igurtzi nion, onbera .»	(357)
onik atera 'salbatu'	«Neska hori al da, ausaz, gure ile artetik inorenera pasaturik, onik aterako gaituen zorria?»	(149)
orbela 'hosto eroria'	«Esamesak, badaki berorrek ere hainbeste, orbelaren antzeko dira.»	(67)
orbera •	«...lepo inguruko atorraren orbera urratu zion hildakoari, alderik alde ebakitako zintzurra erakutsiz.»	(213)
ordoki 'lautada,	«Arrotzak atzerantz jiratu zuen burua etxe aurreko ordoki idor, zabalerantz...»	(13)
orrizu 'zabal-zabala'	«...ia lurreraino erortzen zitzaizkien gona orrizuak ...»	(190)
ospeldu 'hotzaren hotzaz gorritua'	«Ez, behintzat, nire esku ospelduok bertara arrimatu arte.»	(92)
otzan 'barea, lasaia'	«...ez zituen espero izango izotzaren gogorra eta hotza besterik; hargatik, nire jarrera otzanak tentuan jarri zuela zirudien.»	(20)
pagaki 'pago zatiak' (Haya)	«Ezpalak eta pagakiak bota zituen sutara...»	(221)
pamerial 'sorginkeria, enkantamentua'	«Sarrerako kriseiluak erditzalean zeukan gela, eta gure gorputzen errainuez famerialak sortzen zituen sabaian eta hormetan.»	(167)
papar 'bularraren goi alde'	«...eta urrezko gurutze maltar txiki bat paparretik aterarik, eriaz kolpetxoak ematen hasi zen gurutzearen erdian...»	(104)
papartz 'lotsagabea, zoroa'	«...aurrean neukan mutil papartzaren lerdjario batzuegatik erretxindu, egoskortu eta (...) zapuzteko.»	(370)
parada 'egokiera, abagunea'	«Toki batean gelditzen denak (...) ez du bitzta zer den ezagutzeko paradarik izaten.»	(256)
perkatx 'bizkorra, langilea'	«...seme izan nezakeen hain perkatx ari zitzaidan mutil hura...»	(369)
pertzekada 'lapikokada'	«...baina bitan ekarri zidaten arbi egosiz betetako pertzekada ...»	(217)
peskizan 'galdean, bila'	«Burutik pasatu zitzaidan, begiradaz segitzen niolarik, parajeak miatzen baino gehiago ari zela norbaiten peskizan .»	(25)
petux 'ergela'	«— Harrokeriaren edertasuna! Petuxa halakoa!»	(38)
petxa 'zerga'	«...Sein Floretek berak ere ez zuen aurkituko, hartara jarrita, bizitzari zor zaizkion petxen adierazgarri hoberik...»	(267)
pilda 'zaharra eta gastatua'	«Arrotza ikusi nuen, bere arropak bil-bil egin, eta etxe aurreko belar meta baten azpian ezkututzen arropa pilda .»	(24)
pildumen •	«Ugari ziren bide bazterrean barreiaturiko kutun, zirtzil, pildumen eta makuluak, baina ez nien inolako konturik egin...»	(266)




pinpirina 'apaina eta dotorea'	«...gonen koloreak, zein baino zein biziagoak, zein baino zein pinpirinagoak .»	(190)
pipertuta 'piztuta, bizi-bizi'	« Pipertuta hitz egin zidan, suminduta bainoago, hitz egiteko tonu karraskari batez...»	(134)
pipitakolore 'urre kolorea, distiratsua'	«Emakumeen hizketamodu arin eta alaiak, masailtako anpolai zein pipitakoloreek (...) nabarmenago uzten zuten erreginarean aurpegiko zurbiltasuna...»	(189)
pita • haritxoa'	«Gelabazter ilun batean gelditu nintzen, pitik ez buruan, etsita.»	(320)
pitzatu 'arrakalatu, arraildu'	«Berehala hasi ziren elizetako kanpaiak pitzatzen , hil sarrien berri eman behar etengabe.»	(379)
piura 'itxura, traza'	«Ni piura hartan ikusita, zure leotzetako zamaldegira eramane eta oharka batean etzanarazi ninduten.»	(346)
plaudite cives! •	«— Plaudite cives! —esan eta Aba Yakue fraile kaskantak zilarrezko godaleta jaso zuen zerurantz.»	(189)
plus sonat quam valet 'balioa baino zarata handiagoa'	«...buruhauste guztien iturri dugun matxino jendearen (plus sonat quam valet) burdalet izan da neska, matxinokide bainoago...»	(99)
ponperia 'harrotasuna' (?)	« Ponperiak galdu hau.»	(272)
potraketz alaena! 'potrohandia halakoa'	«— Potraketz alaena! Hago isilik!»	(372)
potxingo 'ur putzutxoa'	«...plazaren zoru bustia dardarazten zuen, haizealdien arabera potxingoak txandaka argituz.»	(237)
probidentzia 'laguntza'	«Biderako bi zaldien probidentzia hartzen duena ez da oinezko eskale zarpail bat.»	(44)
profit izan 'aprobetxatu, on egin'	«— Profit dagigula guri, eta guri dagigulako, profit dagiela dexestar guztiei ere!»	(247)
profitatu 'baliatu, aprobetxatu'	«Aise profita zitekeen, bere hizketamodu gurintsu hartaz baliaturik, Grazibelen xalotasunaz.»	(106)
putzil 'mesprezugarria, balio gutxikoa'	«Jonane izeneko putzilarenak ez zuen, beraz, eta egoera hartan, munta handirik.»	(124)
putingoka 'urduri'	«Gero, aurreko bi hankez gora egin eta lauoinka erora lotu zen, putingoka , beti ere nire orpoak sabel alboetan kolpeka.»	(262)
putinkari 'lurrean kolpeka ibiltzen dena'	«Esnatzen haizenean, zaldi putinkari bat aurkituko dut ate nagusiko txingolan lotuta.»	(278)
sagarroi 'kirikiñoa, kirikolatza, trikua'	«Nire buruko sagarroi saldoak hartatik bazkatzerik ez...»	(367)
sahats 'zuhaitz mota (sauce)'	«Entzuten nituen hots bakarrak (...) jaidurak dardartutako atari aurreko sahatsarena ...»	(314)
salabardo 'butrinoa, arrainak	«Ahalegin sekulakoak egin zenituen, baronet, amuarraina (...) zure salabardoan harrapatzeko...»	(221)
saldo 'multzo handia'	«...beldur zenioke-eta kanpoan legokeen zaldun saldoari .»	(48)
samaldaburu 'talde nagusiaren buru'	«...baronet izendatu baininduen Erregek, eta samaldaburu egin...»	(78)
samarrean 'antzean'	«Lehengo modu samarrean hitz egin zuen berrero...»	(374)
sangria 'odola ateratzea'	«... sangria batetik onik irteten laguntzen zutenak...»	(280)
sarkasmo 'ironia latza'	«... sarkasmotik gertuago beti haren irribarrea, zeruko ordezkari bati uste zaion begiramenetik baino.»	(131)




sarkiok sarde uzkiti 'sar iezaiozu sardea ipurditik'	«—Musde Satan! Sarkiok sarde uzkiti , sorkiok zorne zakildi!»	(45)
sarobe 'gordeleku antzeko zelai eremua'	«...erreka inguru guztietan ez baitzen talaiarik harkaizpeko sarobe gorde hura bertatik ikusteko moduan.»	(334)
sarri 'ugaria'	«...eta ez zen sasoi berriaren trazarik ere iturri inguruko ostarte hori eta abaildu sarrrian .»	(258)
sastraka 'sasitza'	«—Hemen sarriagoa da arbola makatza, kainabera eta sastraka ; habeetarako baliorik gabea guztia...»	(30)
sein 'umea, haurra'	«Floret seinak , heldu jendearen grina ugariez jabetuta, grina haien morrontzarik ez izateko ...»	(263)
senper 'ahalegin handia'	«...txipli-txapla haiek ez ziren nire ezinegonak asmatutako hotsak; senper hartako laguntzaren itxaropena ere ez...»	(219)
soara 'begiratzeko modua'	«Banekien ez zegoela musuirri, banekien haren soara ez zela batere gardena izango...»	(148)
soinekope 'soinekoaren azpikoa'	«Bernak ireki zituen astiro-astiro eta soinekope biluziak pubis ile-urria erakutsi zien nire begi harrituei.»	(100)
soizu 'adizu!'	«...nire erronkari erantzun ziezaiola agindu: — Soizu! »	(32)
sona 'entzutea, ospea'	« Sona handia izan zuen garai batean, gaixoen bularrean eskua jarri eta gaitzak sendatzeko gauza omen zen-eta.»	(244)
sor-sorrean 'astun eta baldar'	« Sor-sorrean ibili nintzen luzaz, nondik nora nenbilen ohartu gabe.»	(128)
soraio 'nagia, alferra'	«Ez nintzen, hala ere, beti izan hain soraio marmarioak eramateko orduan.»	(75)
sorkiok zorne zakildi 'sor iezaiozu gatxa zakilean'	«—Musde Satan! Sarkiok sarde uzkiti, sorkiok zorne zakildi! »	(45)
suburu 'beheko sua, tximiniaren hasiera'	«Gelaren erdian, suburu belztu baten pean, bezperako su makaldua ahitzen ari zen.»	(245)
talaia 'toki altua, begiraletzarako'	«...erreka inguru guztietan ez baitzen talaiarik harkaizpeko sarobe gorde hura bertatik ikusteko moduan.»	(334)
tantai 'garaia eta handia'	«Gelatik gelara bitarteko ibilgo luze hartan, nire arreta arrotzaren argibidera adina, haren gorputz tantaira ere jarrita zegoen.»	(31)
tarantela 'Italiako dantza bizia'	«...Grazibelen azken orduak tarantelak dantzatzuz eta ele kontari pasatuko genituela pentsaturik.»	(327)
tartarika 'berriketa, kalaka'	«Inork baino hobeto ezagutzen zituen gertakariak baino harantzagoko lanbroetan harildutako ele, autu, maxio eta tartarikak ...»	(426)
tenore 'abagunea, aukera'	«...noiz izango nuen ate nagusiko mingela jasotzeko tenore .»	(310)
tentanian hasi •	«Burutazio gaiztoa saihestu nahi izan nuen, tentanian hasi , eskuak Jonaneren ipurmasailetara eraman...»	(234)
tentuan jarri 'erne jarri'	«...ez zituen espero izango izotzaren gogorra eta hotza besterik; hargatik, nire jarrera otzanak tentuan jarri zuela zirudien.»	(20)
tipula korda 'tipulaz eginiko sorta'	«... tipula korda heiekin!»	(229)
trabes egin 'apostu egin'	«Pillarditek berak ez al zigun behin trabes egin , eguerdi betea zen batez, ilargiak eguzkia estali baietz...»	(280)
trabuka esan 'eragozpenez, trabaz esan,	«—Ez, ez da... — trabuka esan eta arnasa hartu zuen fraileak.»	(70)
traza 'itxura'	«...eta ez zen sasoi berriaren trazarik ere iturri inguruko ostarte hori eta abaildu sarrian.»	(258)



trenpu 'sasoia'	«Zure gaurko giza trenpua ezagutu nahi nuen eta zenbaiteraino aldatu zaren ikusi.»	(57)
trenputxartu 'alditxartu, gaizki jarri'	«Oso erraz trenputxartzen zen, eta beldurgarriak izaten ziren haren haserreak.»	(249)
trepeta 'tramankulua, tresna'	«— Behean dauzkat pattarra egiteko trepetak .»	(29)
trontzo 'egur puska'	«...Mariderrek pago trontzo pareta bertaratzen zuen bitartean...»	(245)
trosta 'zaldien trotea, galapa'	«Leiho ondoan zegoen, arratsaldeko azken argi izpien baliantz, zaldiaren biraderari eragin, eta haren trostari so.»	(164)
trumiltsuan 'parrastan, oldartsuan'	«Uholdeka zetorren euria goiko kaleetatik beherantz, zaborra eta hondakinak estoldetako ahoetaraino garraiatuz haren ibilgo trumiltsuan .»	(128)
trunpilo 'kozkorra, handitua'	«Eta, narrioen ondoan, pinportak. Okaranaren neurrikoak zituen trunpiloak .»	(357)
ttettekatu 'tt-rekin ahoskatu, busti'	«Otto deitzen ninduten estraina, Grazibelen osaba ere banintzenez, jendeak irriz ttettekaten baitzuen nire deitura.»	(52)
tu egin 'listua edo txua bota'	«Fraile doktrinoren bat bada, berriz, Goigoikoaren kontra tu egin .»	(41)
txaflasta 'zapaltze-hotsa' (onomatopeia)	«Arratoi zapalduen txaflastak eta kurrirka antzeko txirrio etenak entzuten nituen...»	(209)
txaflata 'txaplata, estaldura'	«Beste begia, berriz, ezkerrekoa, txaflata beltz koipeztu batez estalita zeukan ordurako.»	(328)
txaldan 'ganorabakoa, koldarra'	«...natura horrek berorrek egin dizkin ardiak hain otzan eta txaldan .»	(75)
txarrenera jota 'kasurik txarreanean'	«...eta txarrenera jota ere, beti izango duzu musdetarren laguntza.»	(236)
txerpolari 'zirko artista / saltzaile ibiltaria'	«...hari erosten bainizkion trepeta ibiltari harrigarriak Grazibelentzat: txerpolari bat zuhaitz batetik gereziak biltzen...»	(93)
txerren 'Deabrua'	«Oroimena omen da Txerrenek mundu honetan daukan morroirik fidelena...»	(22)
txerrenen premu 'Deabruaren oinordekoa'	«...eztarriko lakartasuna leuntzen dion ardoa Txerrenen premuak ordaindua bada ere!»	(359)
txingola 'xingola, zinta'	«Esnatzen haizenean, zaldi putinkari bat aurkituko duk ate nagusiko txingolan lotuta.»	(278)
txintzarri 'zintzarri txikia edo kanpaitxoa'	«Handik laster, txintzarri hotsak entzun nituen. Lau agure agertu ziren...»	(420)
txipi-txapa 'isilpekoa, sekretua'	«Nik ere jakin nahi nuen ze txipitxapa mota agintzen zion hain ahots finak...»	(286)
txipistu • 'desegin, birrindu'	«Amorruz zapaldu eta txipistu nuen goroldioa, oroimena galtzeko beldurrez bainoago...»	(261)
txirikordatua 'trentzatua'	«...beirateak banoki irazten zuen liburutegiko leihotik irristatutako azken errainu xumea, hirusta txirikordatuaren berdea multiplikatzu.»	(14)
txitean-pitean 'aldika, uneka'	« Txitean-pitean gelditu egiten zen, zerbait hausnartzen ari eta hartarako patxada hartu nahi bailuen.»	(320)
txutxugarri 'txutxuka, marmarka aritzeko	«...matxinoen galbide, izurritearen suntsipen eta gortegizonen txutxugarri egoki gerta zitekeen.»	(122)
ubelari •	«Gauaren argiak galduak zituen ordurako arrasto gorriskara guztiak, eta, ubelari beltza, doi-doi bereizten nuen arrotzaren isla.»	(402)
ulu 'oihu zolia, uhuria'	«... uluren batek edo zakurraren arrazoi jakinik gabeko zaunkak atezuan jartzen ninduenean, kriseilua hartu eta aterantz joaten nintzen...»	(16)



ume gorri 'ume-umetxoa'	«Artean ume gorri , mundua ametsa eta arriskua uztartzen zekitenentzat zela uste nuen...»	(252)
unatu 'nekatu, kantsatu'	«...arteana ere nahikoa luzaz unatu bainuen zaldi nekatua.»	(264)
urgun 'herren'	«Atzetik segitu zidan txakurrak ahalegina saiatuz nire ibilera urdurira egokitzen, baldar eta urgun .»	(357)
uribili 'errekatoa'	«...ur tanta batzuk buru gainera erori zitzaikidanean, sabai gainetik uribili bat pasatzen ote zen bururatu zitzaidan.»	(218)
urki makila 'urki egurrezko makila'	«Gero zubitik urrundu nintzen, urki makila lagun.»	(358)
ut egina 'ospa egin, alde egin'	«Aspaldian ut egina nielakoan jauregiaren jabe egin nintzen egunei, horren azal-apainetan bizi nintzan, ordea...»	(23)
utika hasi 'ospa egiteko esaten hasi'	«Pillardit, utika eta haserre hasi orde, nik esandakoari buelta ematen ahalegindu zen, kementsu hitz eginez.»	(289)
uzkar 'uzkerra, puzkerra'	«...plegazioak egiten genituen, buru-sorbaldak asun sortaz igurtzirik, eta uzkarra botatzen ere hasi ginen...»	(212)
uztai belar 'belar txarra, kaltegarria'	«...halko jendea uztai belarra bezala atera beharra zegoen, erro-errotik, izurritea ere sustritik aterako bazen...»	(387)
uztartu 'lotu'	«Artean ume gorri, mundua ametsa eta arriskua uztartzen zekitenentzat zela uste nuen...»	(252)
xalotasun 'izaera garbi, malizia bakoa'	«Aise profita zitekeen, bere hizketamodu gurintsu hartaz baliaturik, Grazibelen xalotasunaz .»	(106)
xaramela • 'jantzi edo arropa mota'	«Lihozko xaramela loreduneko lokarriak laxatu zituen, bularraldea esturatik libra- tuz.»	(81)
zafila 'atala'	«Haize erauntsi batek gelako leihoa astindu, eta bi zafila zabaldu zituen kolpe zakar batez.»	(171)
zafratu 'kolpatu, astindu'	«Iraganaren aipamen soilak haizeak zafaturiko ihia baino urduriago jarri zidan barrena.»	(50)
zahato 'ardo bota, zahagia'	«Hargatik du Battis Toberak zahatoa burko, zurruta amets!»	(351)
zakartasun 'laztasuna, gogortasuna'	«Arrotzaren ahotsak ez zeukan haren trazak eta eguzkitara iharturiko aurpegikerak iradoki zezaketzen zakartasunik .»	(17)
zalapartari 'iskanbilatsua, zaratatsua'	«...txakur zaunkari eta atso-agure kalapitatsuz osatutako saldo zalapartaria .»	(90)
zalu 'arina'	«Liburuaren ustekabeko erbi horren korrika zaluak harritu bazaitu ere...»	(247)
zanga • 'kuneta, luebakia'	«...masta luze bat jaso zuten nire soldaduek katedrale aurreko plazan; haren inguruan, zanga bat zabal zezatela agindu nien.»	(417)
zapadura 'bultzada, hertsadura'	«Eutsiko ote zioten jauregiari, uholdeak behartutako zapadura berrira egokitu ondoren?»	(122)
zapelatz 'hegazi harrapakaria'	«...ehiztariek beren iragan abilezia eta begi zorrotzaren oroimena miruak eta zapelatzak disekatuz gordetzen duten bezala.»	(80)
zapuztu (kemena) 'hondatu, gutxitu'	«Zaila zait adierazten arrotzaren zerk zapuztu zidan kemena...»	(19)
zardaibazka 'zigortzea merezi duena'	«—Ederki motel! Ez al huen zardaibazka hau garbitu arteko onik? —egin zion errieta.»	(373)
zarpa 'pilda, puskak, zarpaildurak'	« Zarpa zerion arrotzaren arropa guztiari, obramendu eta ustel usaina haren gorputzari.»	(15)
zarpail 'zatarra, trauskila'	«Biderako bi zaldien probidentzia hartzen duena ez da oinezko eskale zarpail bat.»	(44)



zata 'abarka-mantarra'	«Oinetako haustuak erazten hasi zenean, makurtu egin nintzaion — aitortzea mingarri baldin bazait ere— zatak kentzen laguntzeko.»	(21)
zedula 'agiria, dokumentu berezia'	«—Oraingoz nahikoa nuke katedraleko zedula , protokolo eta kodizeetan arakatu ahal izateko baimena emango bazenit.»	(132)
zerbaiten baliantzan 'zerbaitez baliaturik'	«Leiho ondoan zegoen, arratsaldeko azken argi izpien baliantzan , zaldiaren biraderari eragin, eta haren trostari so.»	(164)
ziba 'tronpa, kordelez birarazten den	«...bigarrenaren zilarrezko hots dantzaria luzaz aritu zen, ziba bailitzan...»	(312)
zimiko 'ausikia bezalakoa, atximurdura'	«Tabernariak zorriak zizkian bart gorputz osoan, eta hirekin kitatu nahi zizkian haien zimikoak .»	(371)
zimitario 'zimitoria, portikoa, ataurrea'	«Eskale trazako hiruzpalau gizon zeuden atariko zimitarioaren babesera bilduak...»	(266)
ziribide 'iruzur edo engainu modua'	«...Aba Yakueren amarruak eta, oro har, Erregeren interesa piztuko zuten azpijoko eta ziribide guztiak.»	(103)
zirigarri 'zirikatzen duena, akuilagarria'	«...Aba Yakuek oso maitea baitzuen hizketamodu bihurri eta, era berean, zirigarria .»	(104)
zirimola 'zurrunbiloa	«...haritz hosto galdua, udazkeneko mendebalaren erasoaldiak zirimola eroetan astindua...»	(304)
zirkilu 'zurkulua, zokoa, ezkutalekua'	«...arrotz hirian ezkutatu baita, berorrek beti gorroto izan duen (...) luhartzen zirkilu horretan...»	(99)
zirtots 'karraskada hotsa'	«...oihukatu nion suaren zirtots gero eta ozenagoaren gainetik...»	(319)
zirtzil 'zarpatsua, zaharkitua'	«Kapa hartu eta soinean behera jantzi nuen, azpitik etxeko arropa zirtzila neramala ohartu ere egin gabe.»	(325)
zizeilu 'zitzaillua, besaulkia'	« Zizeiluan eseri nintzen, beharreko asti guztia hartzera deliberaturik.»	(131)
zohi 'mokila, lur puska gogortua'	«...eskuak hondarrez igurtziz batzuek, zohiz eta astagorotz lastatsuen zikinduz bestetzuek.»	(192)
zolda 'kraka, itsasten den lohia'	«Zerorrek ere ekarriko zenuen, bada, oinetan zolda , estrainekoz etorri zinenean?»	(22)
zoli 'zorrotza, ahalmen handikoa'	«Gauza gutxi dago inon helge itxurago, ezpainbihurrika zotin egiten duen gizon zolia baino...»	(321)
zoperna 'soperna, uholdea'	«Jendeak, hala, preso guztiak eramango zituen zoperna eta euri-jasa lotuko zituen.»	(122)
zorne 'amorru bizia / gatxa (pus)'	«...urrutiegi harama Aba Yakueren kontrako zorneak .»	(103)
zuraia 'zurezko egitura'	«...kainabera eta zain-belarren artean miatzen, noiz eskuaz ukituko alaren zuraia alkaternaz istinkatua.»	(316)
zurda 'zaldiaren bizkarreko ile luzeak'	«Eskua pasatu nuen zaldiaren zurda gainetik, fereka pausatuan...»	(253)
zuri-plantak egin 'zuri izatearen itxurak egin'	«Nekez egin dezake zuri-plantarik beleak zozoarekin.»	(60)
zuritu 'justifikatu'	«...bere samaldarako hartu ninduenean, gogoz zuritzen nituen kapi- tainaren gripen handietako sarraskiak...»	(75)
zurubi 'eskailera, maila multzoa'	«Sotoaren ondoren, etxeko gela eta sala, pasadizo eta zurubi , mandio nahiz biltegi, jauregi guztia erakutsi nion.»	(29)
zutitzera egin 'zutitzeko keinua egin'	« Zutitzera egin nuen. Grazibelek nire esku muturra askatu zuen.»	(111)
zuzi 'tortxa, erretxinadun zur puska	«Bidean aurrera egin ahala, haratustel zornetuaren kiratsa hasi zitzaion nagusitzen zuzien alkaternarenari.»	(117)